

Bertso zahar zein berriak, auskalo zeinek jarriak, Biteriko emanaldi berezian

'Auskalo zeinek jarriak' bertso jarrien saioa eskainiko dute Unai eta Eñaut Agirre anaiek, Jexux Mari Irazu eta Imanol Kamioekin batera. Arratsaldeko 19:00etan izango da, eta azkeneko sarrerak salgai daude, 7 euroan.

HERNANI BERTSOLATA

Emanaldi berezia prestatu dute gaur arratsalderako, Unai eta Eñaut Agirre anaiek: *Auskalo zeinek jarriak* bertso jarrien saioa eskainiko dute Biteriko areto nagusian, 19:00etan hasita. Eta gaurkoan, beste bi lagun ere izango dira haiek: Imanol Kamio musikaria, eta Jexux Mari Irazu bertsolaria.

Iraulio Panttalone Bertso Kabiak antolatutako Bertsolataren barruan eskainiko dute emanaldia, eta azkeneko sarre-

rak salgai daude, 7 euroan: Dobera Euskara Elkartaren bulegoan (Larramendi kalea 11), edo 18:00etatik aurrera Biterin. Izan ere, bildutako dirua Doberari laguntzeko izango da.

«Garai batean ohikoa izaten zen bertso jarriak kantatzea, eta gaur egun hori ez da erabat hautsi, nahiz eta bat-batekoak presentzia gehiago duen. Ezkutuago egon da bertso jarria, eta bere lekua eman nahi diogu», azaldu dute.

Eta horretarako, bertso zahar zein berriak ekarriko dituz-



Taula gainean elkarrekin izango dira berriro, Imanol Kamio eta Eñaut Agirre.

te taula gainera; tartean, XIX. mendean Xenpelar osaba-ilebek kantatutakoak. Kamioaren musikak lagunduta ariko dira

bertsotan, baina baita *a capella* ere: «zati bat erreserbatua daukagu horretarako», aurreratu dute Agirre anaiek. **K**



Eskubaloiko ate irekiak, bi egunez

HERNANI ESKUBALOIA

Astelehenean egin zituzten eskubaloia ezagutzeko ate irekiak Astigarragan, Mundarrok antolatuta (argazkian). Eta gaur eta bihar, hernaniarren txanda izango da. Bi egunetan, 16:00etatik 18:00etara izango dira ate irekiak, kiroldegian, Hernaniko Eskubaloi Taldeak antolatuta. 2008 eta 2011 urteen artean jaiotakoentzat dira.

Azkeneko eguna gaur, bozkatzeko

HERNANI INAUTERIAK

Lehiaketa jarri du martxan Hernaniko Udalak, 2020ko Inauterietarako kartela aukeratzeko; eta azken fasera iritsi diren lau proposamenen artean, gaur da bozkatzeko azkeneko eguna. Biterin edota www.hernani.eus web orrian eman daiteke botoa.

Kabalgatan paje izateko, trajea gaur

HERNANI ERREGE MAGOAK

Urtero bezala, Errege Magoen kabalgata ibiliko da Hernaniko kaleetan ere, urtarrilaren 5ean. Eta bertan paje gisa parte hartu nahi dutenek, gaur daukate hitzordua, trajea jasotzeko: Biterin, 16:30etatik 17:30etara.

Presoen aldeko ekintzak, bihar

ASTIGARRAGA-HERNANI PRESOAK

Sarek eta Etxerategen antolatuta, elkartasun gunea jarriko dute bihar, Hernaniko Kaxkoan, herritarrek presoei opari bat edo idatzi bat uzteko. Ondoren, 20:00etan, ekitaldia egingo dute Tilosetan. Astigarragan, berriz, kontzentrazioa egingo dute Joseba Barandiaran plazan, 20:00etan; eta mariskada zozketatuko dute bukaeran. Etzi, manifestazioa 12:00etan, Donostiako Bulebarretik.

Aisialdirako makina bat aukera egun hauetan, ohe elastiko, puzgarri, jolas eta tailer artean

Aukera zabala izango dute txikienek gaur eta bihar: ludoteka eta tailerrak Hernanin; haur parkea, jolas aretoa eta ohe elastikoak Astigarragan; eta mahai jolasak Ereñotzun.

URUMEA GABONAK

Gabonetako egun seinalatuen artean, oporraldiaz gozatzeko aukera zabala izango dute Urumea bailarako haur eta gazte txoek, egun hauetan. Eta gaur bertan, denetik izango dute.

Hernanin, joan den astelehenean bezala, ludoteka jarriko dute kiroldegian, gaur eta bihar, goizeko 10:00etatik 13:00etara. Eta bi tailer ere izango dira gaur; biak ere, Biterin. Batetik, zirku tailerra antolatu du Gaztelekuak. Eta bestetik, Sormen Tailerra hasiko da 11:00etatik 13:00etara,

2004-2007 urteen artean jaiotakoentzat; aurrez izena eman behar zen, eta lau eguneko tailerra izango da, Uxue Bereziartuaren eskutik.

Haur parkea Astigarragako kiroldegian, goiz eta arratsalde Aukera hirukoitza izango dute Astigarragan ere, gaur. Hasteko, urtero bezala, haur parkea jarriko dute kiroldegian, goiz eta arratsalde; 11:00etatik 13:30etara eta 16:30etatik 19:30etara. Doan izango da sarrera, eta denetik egongo da: haurrentzako ludoteka, txirristrak, giza-erratzak,

puzgarriak, triziklo elektrikoak, futboleko atea, *Wipeout* pasabidea... Gainera, Herri Eskolako atarian, talo tailerra izango da goizean, eta ogi eta pasta tailerra arratsaldean, norberak egin eta jateko.

Gaur zabalduko ditu ateak, kultur etxeko jolas aretoak ere. Irekia eta doakoa izango da sarrera han ere; goizez 11:00etatik 13:00etara, eta arratsaldez 16:00etatik 18:30etara. Bihar, etzi, hilaren 31n eta urtarrilaren 3an ere egongo da zabalik.

Eta azkenik, bihar eta etzi beste aukera bat ere izango da, herriko hiru plazatan jarriko baititu ohe elastikoak eta puzgarriak, Astiko elkarteak: Joseba Barandiaran, Norberto Almandoz eta Kontxa Etxeberrian, 11:00etatik 13:30etara eta 17:00etatik 20:30etara.

Eta Ereñotzun ere izango da jolaserako tartea. Izan ere, mahai jolasak jarriko dituzte bihar, arratsaldeko 16:30etatik aurrera, frontoian.

Zinea Portu auzoan, antzerkia Biterin eta ipuinak Goizuetan Haurrentzako beste hiru ekintza ere badira bailaran, gaur eta bihar. Hasteko, Hernaniko Portu auzoan, haurrentzako pelikula bat jarriko dute gaur, arratsaldeko 17:00etan hasita.

Biteri kultur etxean, berriz, *Burbuilak* haur antzerkia eskainiko du bihar, 18:00etan, 7 Burbujas konpainiak. Sarrerak salgai daude, 3 euroan.

Eta Goizuetan, *Amonaren istorioak* haurrentzako ipuin kontaketa eskainiko du bihar, 17:00etan Xalto eskolako jangelan, Amaia Elizagoienek. **K**

GABON HAUETAN OPARITU EDERTASUNA ETA ONGIZATEA

nibiru
UNISEK EDERGINTZA ZENTROA

SPA
Tratamenduak
Mikro pigmentazioa
Masajeak

Indiba
Tratamenduak
Manikura
Pedikura
Fotodepilazioa
Automakillaje
ikastaroa

IZPIZUA, 1 HERNANI
943 24 35 60
www.nibiruedergintza.com

Tripontzi jatetxea

PINTXOAK
RAZIOAK
ENTSALADAK
PLATER KOMBINATUAK
ARRAI FRESKOAK

ANDRE KALEA, 11 · HERNANI
943 555 724

Adarraga

ADARRAGA
Konfitegia
Pasteldegia

Urbietta Etorbidea 7
943 55 09 10

Amaia
arrandegia

Arrainak
Itsaskiak
Fresko eta izoztuak

943 55 07 52 / 650 53 87 72
Andre Kalea 34. 20120 HERNANI

ISABEL

Janari denda
COVIRAN

Tomas Alba 11,
Astigarraga
943 55 23 67

EGURDIA GAUR Behe-lainoak ugarituko dira goizean, eta zerua oso lainotuta egongo da ia egun osoan. Baliteke euri pixka bat egitea ere, arratsaldearen hasieran; baina gero, artetu eta ostareak zabalduko dira. Mendebaldeko haizea iparraldera aldatuko da. **Min.9° / Max.14°**

BIHAR Hobera egingo du eguraldiak, bihar. Goizean behe-laino batzuk agertuko dira oraindik, baina pixkanaka garbitu, eta eguzkia izango da jaun eta jabe arratsaldean. Ekialdeko haizea ibiliko da kostaldean, eta aldakor barnealdean. **Min.6° / Max.14°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALZAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** Gaeuz: **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



Kantari atera ziren Ereñotzun, astearte arratsaldean, Txirrita eskolako haur eta gurasoak.

Olentzerok eta Mari Domingik argituta, egun berezia 24a

URUMEA GABON GAUA

Beste urte batez, berezia izan zen abenduaren 24a, Gabon Gauekoa, Urumea bailaran. Olentzero eta Mari Domingiren etorrerak argituta, hamaika txokotan aritu ziren kantari herritarrak, kalera atera ziren musikariak ere, eta ehunka gaztetxo bildu ziren bi bisitari berezien inguruan. Goizean zein arratsaldean, bailarako herrietako kaleetan barrena ibili ziren, haurren gutunak, muxuak zein txupeteak jasotzen, eta goxokiak banatzen. Eta gauerdia igarota, berriro egin zuten herriz herri eta etxez etxeko erronda, opariak uzteko; haur eta heldu lotan zeudenean, atsedean hartzen, egunean zehar ahotza urratu gabe kantari aritu ondoren. Dagoeneko bueltatu dira mendira, baina datorren urtean bueltatu arte, mezu bat utzi diete Urumea bailarako herritar guztiei: zintzoak izan eta ondo portatu daitezela. Bestela, ikatza soberan daukala etxean, ekartzeko...



Astigartarren gutunak bakarrik ez, muxu goxoak ere jaso zituen Olentzerok.



Ehunka goxoki banatu zituen Olentzerok Hernanin, Kaxkoan ibili ondoren.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† **JOAQUINA ZABALETA BALERDI**
ANDREA
(Eusebio Arambururen alarguna)
Atzo hil zen, 100 urte zituela

- Goian Bego -

Seme-alabak: Arantxa eta Jose Mari Ibarburu (†), Jose Mari eta Bixen Berasategi, Lourdes eta Leandro Barrutia; bilobak: Maite eta Ivan, Aitziber, Beñat eta Nerea, Itziar, Xabier eta Karina; birlobak: Jon, Nahia, Alex eta Danel; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela **GAUR, OSTEGUNA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2019ko abenduaren 26an

OHARRA: Gorputza Hernaniko ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da eguerdiko 12:15ak arte.

JOAQUINA ZABALETA BALERDI

Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.

ARANBURU FAMILIA

Hernanin, 2019ko abenduaren 26an

† **JULIAN ARANA JAKA**
Abenduaren 23an hil zen, 87 urte zituela

- Goian Bego -

Emaztea: Miren Arantzazu Aranburu; seme-alabak: M. Sorkunde, Jose Ignacio eta Julene Salaberria, Martin (†) eta Ivan (†); bilobak: Ainize eta Ricardo, Julen eta Ainhoa, Iñaki eta Naiara; anai-arrebak: Jose Manuel (†) eta Mari Carmen Goikoetxea; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela **GAUR, OSTEGUNA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2019ko abenduaren 26an

OHARRA: Familiak ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN gaur 10:00etatik 12:00etara egingo du harrera.

JULIAN ARANA JAKA

Hernaniko Udala

Hernanin, 2019ko abenduaren 26an

IRAGARKI MERKEAK

Sagardotegirako sukaldaria eta sukaldari laguntzailea behar dira. Euskaldunak.
Deitu: 625 256 777
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Orona fundazioa

ERREMONTA BILZIRIK

ABENDUAK 28 Larunbata 16:30h.

49. BINAKAKO ERREMONTA TXAPELKETA NAGUSIA 2019

FINALA

etxe enenak ORIAMENDI 2010 galarreta